

**BIHAR, ASTEAZKENA, AZAROAK 11, HASIKO DA, NOSFERATU
PROGRAMAZIOAREN BARNEAN, 70EKO THRILLER ESTATUBATUARRA ZIKLOA,
BULLITT (1968) LANAREN PROIEKZIOAREKIN**

Bihar, asteazkena, azaroak 11, 20:15ean, Antzoki Zaharrean, NOSFERATU programazioko ziklo berria hasiko da, oraingoan 70EKO THRILLER ESTATUBATUARRA delakoari eskainia, **Bullitt** (*Bullitt*; Peter Yates, 1968) lanaren proiektioarekin, Steve McQueen protagonista duen polizia-generoko klasikoa.

Zikloak maiatzaren 5era arte iraungo du eta generoko 16 filmen aukeraketa ikusi ahal izango dugu. Film horien artean, Sam Peckinpah, Roman Polanski, Sydney Lumet, Don Siegel, Arthur Penn edo William Friedkin bezalako zuzendariak eta 70eko hamarkadako *thriller* klasikoak aurkituko ditugu, besteak beste, **Contra el imperio de la droga**, **La huida**, **San Francisco, ciudad desnuda**, **Dilliger**, **Serpico** edo **La noche se mueve**. Beti bezala, atzera begirakoa liburu baten argitalpenarekin osatuko da. Liburuaren koordinatzailea, oraingoan, Antonio José Navarro dugu. Sarrerak **3,70 euro**tan egongo dira salgai eta zikloko film guztiak eta liburua biltzen dituen **40 euro**ko abonua ere eros daiteke Antzoki Zaharreko leihatilan.

Hirurogeita hamarrekoko hamarkadako *thriller* estatubatuarra zinema beltz klasikoaren garapen gisa loratu zen, garai berriekin gai eta forma berrietara moldatu behar izan baitzuen. Liburuaren sarreran Antonio José Navarrok adierazten duen bezala:

"Zinema beltz "klasikoa" ez zen hirurogeiko edo hirurogeita hamarrekoko polizia- edo hilketazinemaren sorrerarekin, argazki-sistema gardenagoak ezartzearekin edo kolorea erabiltzearekin batera desagertu; telebistatik zetozen narrazio-erabilera berritzaileen biktima ere ez zen izan, ez zuen indarkeriaren zinema-adierazpen berriak, esplizitu, basati, errealistagoa zenak ezeztatu, eta bere gizarte- edo politika-konnotazio kritikoenen heriotza ere ez zuen ekarri. Zinema beltz klasikoa, sinpleki, organismo bizidunen multzoa bezala, "garatu egin zen", beste espezie batean bihurtu zen.

Hala ere, hirurogeita hamarrekoko USA thrillerra, laurogeiko actioner horiek jaio aurretik, zinema beltzaren azken adierazpen "purua" ez ote den galdetu beharko genuke. Hogeita hamar eta berrogeiko hamarkadetakoko bere homologoak bezalaxe, hirurogeita hamarrekoko zinema beltza dei dezakegunak krimenaren banakoaren eta kolektiboaren problematika jarri zuen mahai gainean, testuinguru garaikidean, ikus-tratamendu errealistarekin, aldi berean lekukotasunarena eta kritikoa, Sistemaren injustizia eta ustelkerietatik sortzen den anbiguotasun morala eta zorigaitza erakusten zuena. Eta irudimenez betetako hizkuntzaren bidez egin zuen hainbat iturritatik edanez, hala nola, Hollywoodeko iturri klasikoak, zinema berri europarrak eta dokumentalaren eta telebistaren estetika hunkigarri, "egiazko" eta "berehalakoa".

Zinemagile berriak eta eskarmentu handiko ibilbide luzea zuten beste batzuk, garai hartako zinema beltz amerikarrak ukitu zituen bide desberdin guztietan barna ibili ziren: *blaxploitation* (bereiziki biztanle afroamerikarrari zuzenduriko zinema) bezalako genero berrietatik hasi, John Shaft detektibea buru zutela, eta "konspirazio-teorien" inguruko filmetaraino, hala nola, **Todos los hombres del presidente** (1976); metodo pertsonal eta bizkorak erabiltzen zituzten poliziak ere agertu ziren, horien artean Harry Callahan –Clint Eastwood **Harry, el sucio** (1971) lanarekin hasitako sagan– edo "Popeye" Doyle –Gene Hackman **Contra el imperio de la droga** (1971) lanean-, titulu mitikoak, besteak beste, **El padrino** (1972) edo **Malas calles** (1973), Vietnameko Gerrak –**Taxi Driver** (1976)– eta 70eko hamarkadan gertatu ziren aldaketek gizarte osoan izan zuen eragina... Antonio José Navarrok hitzetara itzuliz:

"Hirurogeita hamarrekoko USA thrillerrak irauteko behar zuen guztia hiru elementu ziren: krimenaren sakontasuna agertzea bere mota guztietako edozeinetan -hilketatik hasi eta xantaiaraino, bakarka aritzen den hiltzaileak egina edo talde batek, gauez eta azpikeriaz edo egun betean...-; krimenak bezain sakona izan behar duen sare psikologikoa, delitua eta giza gibela "esplikatu duena" -ekintzak, genero honetan, hitzak baino esanguratsuagoak dira-, Marcel Omsen hitzak aipatuz, gutako bakoitzean, banakako eta gizaki sozialak, elkarrekin bizi diren errealitate paralelo horiek biluzteko gaitasuna, eta krimenaren nozioak komunitate oso baten elkarbizitza baketsua zalantzan

jartzen duena; eta, noski, aipatu dugun bezala, klaustrofobia, paranoia, nihilismoa, patuaren ideia tragikoa areagotuko duen ikus-estiloa. Generoak sobera bete zituen baldintzak, ezaugarri esanguratsua aurkeztuz: horietako askok ez dute beren indar artistikoa galdu. Agian, islatzen dituzten gizarte- eta politika-arazoak, mahai gainean jartzen dituzten giza gatazkak, ez direlako desagertu: besterik gabe, beste forma batzuk, beste mozorro batzuk hartu dituzte. Agian, bere narrazio "indartsua", ondo diseinatutako eta elkarri lotutako egoerekin, ekintzaren funtsezko papera, estilo heldu eta serio bati lotuta, istorio bat kontatzearena, munduaren ikuspuntu zehatza adieraztearena, batzuetan eztabaidagarria, baina politikoki zuzenak diren gozagarrietatik urrun, bitxikeria bihurtzen baitituzte. Hollywoodeko zinemaren pixkanakako infantilizazio eta espektakularizazioari bide utzi zioten bitxikeriak".

ZIKLOKO FILMAK

Bullitt (*Bullitt*, 1968). **Zuzendaria:** Peter Yates

Frank Bullitt-ek joera berria ireki zuen garaiko zinema amerikarrean. Bete dotore eta cool agertzen den eta San Frantziskon bizi den Bullitt detektibea, Ford Mustang bat gidatuz, agian, garai hartako *thriller* berriaren lehen polizia "moderno" dugu. Steve McQueen da ikertzailearen aurpegia, hilketa bat ikertzen duen bitartean politika-, epaitegi- eta krimen-interesaren korapilo konplexuan barneratuta amaitzen duena eta auto-jazarpenera ospetsuenen artean sartu zenaren protagonista.

El detective (*The Detective*, 1969). **Zuzendaria:** Gordon Douglas

Eskarmentu handiko Joe Leland polizia eragin handiko herritar ezagun baten semearen hilketa ari da ikertzen. Proba guztien arabera, hiltzailea pisu-kidea da eta beraz, atxilotu ostean, epaitu, heriotza-zigorra ezarri eta hil egin dute. Beste jazoera bat ikertzen ari direla, proba berri batzuek agian hanka sartu zutela pentsaraziko diote Leland-i. Zekena, iluna eta kontzesiorik gabea, Frank Sinatra aktore-lan onenatarikoan duen detektibearen erretratua.

Shaft (1971). **Zuzendaria:** Gordon Parks

"Zein da neskentzat makina sexuala den detektibe pribatu beltza? ¡Shaft!". Horrela hasten da filmari esker (eta alderantziz) legenda bihurtu den Isaac Hayes-en abestia. *Blaxploitation* fenomenoak, gutxi gorabehera urtebete lehenago hasitakoak, bere lehen arrakasta New York erdigunean bizi den detektibe beltz honen istorioarekin izan zuen. Kasu honetan, mafia italiar eta afroamerikarraren artean, Harlem-eko "gau gorrietan" murgiltzen den Richard Roundtree-k interpretatzen du. 70eko hamarkadako ezinbesteko klasikoa.

Contra el imperio de la droga (*The French Connection*, 1971). **Zuzendaria:** William Friedkin

Polizia-zinemako klasiko ukaezina eta 70eko USA *thriller*-aren ikur. Bi polizia, Jimmy "Popeye" Doyle (Hackman) eta Buddy Russo (Scheider), Alain Charnier (Rey) dotorea buru duen droga-trafikoko erakunde frantsesaren aurrean. Pertsonaia ahaztezinak, hiri endekatua, indarkeria estalia, dirua eta historiara pasa den jazarpenera. *Thriller*-a ez zen berriz lehen zena izatera itzuli.

Charley Varrick (1973). **Zuzendaria:** Don Siegel

Charley Varrick independentea da, bere kaxara joan izan den lapurra, lapurreta txikietan espezializatua Poliziak gehiegi gogait ez dezan. Hala ere, Nuevo Mexico-ko herri bateko banku txiki bati eginiko azken lapurretan guztia gaizki irten da, hildakoak daude eta lapurtu duen kopurua horrelako lekuetan ohikoa dena baino askoz ere altuagoa da. Laster jakingo dugu zergatik. Generoan klasikoa den Don Siegel-ek zuzendu du: **Madigan** (1968), **Dirty Harry** (1971), **Escape from Alcatraz** (1979)...

Los nuevos centuriones (*The New Centurions*, 1972). **Zuzendaria:** Richard Fleischer

Kilvinski, lan besterik egin ez duen eskarmentu handiko polizia da eta beraz, bere bizitza pribatua nahikoa ahula da. Orain, erretiroa gertu duela, beldurra du lagun, ez baitaiki zer egingo duen lana uztera derrigortzen dutenean. Lankide gisa Fehler izendatuko diote, Sailean sartu berri den gazte idealista eta handinahia. Aste batzuen buruan, lana bere bizitza guztia xurgatzen ere hasiko zaio. Zenturioi berriak ditugu.

Pelham, 1, 2, 3 (*The Taking of Pelham One Two Three*, 1974). **Zuzendaria:** Joseph Sargent
New Yorkeko metro-bagoia bahitu dute lau delitugilek –Urdina, Berdea, Grisa eta Marroia jaunak, Tarantinok **Reservoir Dogs** (1992) filmean omendu zituen izenak–, eta milioi bat dolar eskatzen dituzte ordu betean, bestela bahituak hiltzen hasiko baitira. Garber agenteak hasiko ditu negoziazioak. Erritmo bizkorreko *thriller*-a, Tony Scott-ek pasa den urtean bertsionatua.

La noche se mueve (*Night Moves*, 1975). **Zuzendaria:** Arthur Penn
Gene Hackman-ek, bere lanbidearekin nazkatua dagoen Harry Moseby detektibe pribatua interpretatzen du. Emakume-aktore alkoholizatuaren une onenak aspaldi pasa ziren eta detektibea kontratatuko du bere alabaorde desagertua aurki dezan. Kasu erraza zirudiena, ordea, korapilatu egingo da. Klasikoa, Penn-en film onenetako bat, 70eko *thriller*-aren aurpegia: Hackman.

Cruising (1980). **Zuzendaria:** William Friedkin
Serie-hiltzaile batek, New Yorkeko *gay* tabernetan ibiltzen ziren hainbat homosexual hil ditu jada. Hiriko polizia bat giro horretan murgilduko da hiltzailea aurkitzeko asmoz. Erabat ezezaguna zaion munduan ikusiko du bere burua, bidaia bakartia, bere lankideekin eta neska-lagunarekin ia harremanik gabe, bere bizitza pertsonala eragiten hasiko da.

El último testigo (*The Parallax View*, 1974). **Zuzendaria:** Alan J. Pakula
70eko hamarkadan ugaldutako "konspirazio-teoriei" buruzko filmen barruan ezagunenetakoa. Kasu honetan, Warren Beatty-k interpretatzen du lankide batzuekin batera senatari baten hilketaren lekuko izan ostean (hiltzaileak bere buruaz beste egiten ere ikusiko dute), lankide horiek, pixkanaka, egoera bitxietan hiltzen ari direla konturatzen den anbizio askoko kazetaria. Parallax korporazio misteriozua jazoera horien guztien erdian dagoela dirudi.

La huida (*The Getaway*, 1972). **Zuzendaria:** Sam Peckinpah
McQueen eta MacGraw-ek Texasen banku bat lapurtu ostean Mexikoko mugara iritsi nahi duen bikotearen aktore-lanetan ikusiko ditugu. Bikotearen atzetik, ordea, beren lagun ohiak ibiliko dira dirua berreskuratu asmoz. Jim Thompson-en –*Pop. 1280, The Drifters*– eleberrian oinarritutako *road movie* bizia. Etorkizuneko errealizadore eta produktore Walter Hill-ek egokitua eta Quincy Jones-ek musikatua. Sam Peckinpah-ek zuzendu zuen **Straw Dogs** (1971) eta **Junior Bonner** (1972) lanen ostean eta **Pat Garrett & Billy the Kid** (1973) eta **Bring Me the Head of Alfredo Garcia** (1974) filmen aurretik.

San Francisco, ciudad desnuda (*The Laughing Policeman*, 1973). **Zuzendaria:** Stuart Rosenberg
San Frantzisko da polizia generoko film bizi eta ilun honen agertokia. Hilketen sailean dagoen polizia-bikoteak metodo oso desberdinak erabiltzen ditu eta autobus baten barruan egindako hilketa anitzeko jazoera ari da ikertzen. Hil dituzten zortzi pertsona horiek, polizia bat barne, bala-tiroz josi dituzte. Wahlöö-Sjöwall senar-emazteen *The Laughing Policeman* eleberri suediar ezagunaren egokitzapena.

Chinatown (*Chinatown*, 1974). **Zuzendaria:** Roman Polanski
Jack Nicholson-ek, Robert Evans-en –garai hartako Hollywood-en modan zegoen gizona, zeinaren igoera, une gorena eta erorialdia *The Kid Stays in the Picture* autobiografian jasotzen den– ekoizpen honetan, J. J. Gittes interpretatzen du. Protagonistak, 30eko hamarkadako Los Angeles-eko detektibe pribatuak, indarkeria, moral ustela eta ustelkeria politikoaren gunean murgilduta amaituko du. Polanski-k, film honekin, "giza gutziak Los Angeles-eko historia eta mugak nola egituratu zituen" ikusarazi nahi izan zuen. Garai hartako zinemaren ezinbesteko klasikoa.

Fuga sin fin (*The Last Run*, 1971). **Zuzendaria:** Richard Fleischer
Harry Garmes, Chicago-ko gangster zaharra, erretiroan bizi da Espainiako kostan bere zaletasunari denbora eskainiz: autoak. Mandatu bat jaso du, bere karrerako azkena: gaizkile amerikar arriskutsua eta bere neska-laguna Frantziaraino eramatea. Lana, itxuraz erraza, tranpa bihurtuko da. Erritmo biziko *road movie*-a John Huston-ek hasi eta Ingmar Bergman-en ohiko kameralaria argazkien arduradun izan zuena.

Dillinger (*Dillinger*, 1973). **Zuzendaria:** John Millius

Historiako gangster ospetsuenetakoren baten bizitza eta hiltzaile-ibilbidearen istorioa. Hainbat alditan erabili izan da pantailarako gai gisa –azkena, aurtur bertan, Michael Mann eta Johnny Depp-en eskutik, **Public Enemies**–. Warren Oates-ek interpretatzen du John Dillinger, Melvin Purvis bitxi eta saiatur urtetan atzetik izan duen gizona. 70eko hamarkadako USA *thriller* berrituaren barruan inspirazio klasikoko zinema, beranduago **The Wind and the Lion** (1975), **Conan the Barbarian** (1982) eta **Red Dawn** (1984) filmak zuzendu zituenaren eskutik.

Serpico (*Serpico*, 1973). **Zuzendaria:** Sydney Lumet

Al Pacino da Frank Serpico, eroskeria onartu ez eta sailean zabaldua dagoen ustelkerian parte hartu nahi ez duelako bere lankideen babesik ez duen New Yorkeko polizia zintzoa. Garai hartan zirrara handia eragin zuen hiriko poliziar buruzko erretratu krudela. Benetako kasu batean oinarrituta. Sydney Lumet-ek, 50eko hamarkadatik generoan aritu denak zuzendua: **12 Angry Men** (1957), **Dog Day Afternoon** (1975), **Q & A** (1990), **Before the Devil Knows You're Dead** (2007)...

PROGRAMAZIOA

azaroa 11 noviembre
azaroa 18 noviembre
azaroa 25 noviembre
abendua 2 diciembre
abendua 9 diciembre
abendua 16 diciembre
urtarrila 13 enero
urtarrila 27 enero
otsaila 3 febrero
otsaila 10 febrero
martxoa 3 marzo
martxoa 17 marzo
martxoa 24 marzo
apirila 14 abril
apirila 21 abril
maitza 5 mayo

Bullitt
El detective
Shaft (*EUSKARAZ*)
Contra el imperio de la droga
Charley Varrick (*EUSKARAZ*)
Los nuevos centuriones
Pelham, 1, 2, 3
La noche se mueve
Cruising (*EUSKARAZ*)
El último testigo
La huida
San Francisco, ciudad desnuda
Chinatown (*EUSKARAZ*)
Fuga sin fin
Dillinger
Serpico

**MAÑANA, MIÉRCOLES 11 DE NOVIEMBRE, COMIENZA, DENTRO DE
LA PROGRAMACIÓN NOSFERATU, EL CICLO EL THRILLER USA DE LOS 70,
CON LA PROYECCIÓN DE BULLITT (1968)**

Mañana, miércoles 11 de noviembre, a las 20:15 horas, en el Teatro Principal, comienza el nuevo ciclo de la programación NOSFERATU, dedicado en esta ocasión a *EL THRILLER USA DE LOS 70*, con la proyección de la película **Bullitt** (*Bullitt*; Peter Yates, 1968), un clásico del policíaco protagonizado por Steve McQueen.

El ciclo se prolongará hasta el 5 de mayo, y en él se podrá ver una selección de 16 películas del género dirigidas por autores como Sam Peckinpah, Roman Polanski, Sydney Lumet, Don Siegel, Arthur Penn o William Friedkin, con títulos clásicos del *thriller* de los años 70 como **Contra el imperio de la droga**, **La huida**, **San Francisco, ciudad desnuda**, **Dilliger**, **Serpico** o **La noche se mueve**. Como siempre, esta retrospectiva se acompañará con la publicación de un libro, coordinado en esta ocasión por Antonio José Navarro. Las entradas cuestan 3,70 € y hay un abono de 40 € que incluye todas las películas del ciclo y el libro y que se puede adquirir en la taquilla del Teatro Principal.

El *thriller* estadounidense de los años 70 floreció como una evolución del cine negro clásico, que con los nuevos tiempos tuvo que adaptarse a nuevas temáticas y formas. En palabras de Antonio José Navarro extraídas de la introducción del libro:

“El cine negro ‘clásico’ no desapareció con el nacimiento del cine policíaco o criminal de los años sesenta o setenta, la implantación de sistemas fotográficos más nítidos o el empleo del color; tampoco fue la víctima de los novedosos usos narrativos provenientes de la televisión, no se vio anulado por la nueva representación cinematográfica de la violencia, más explícita, más brutal, más realista, ni supuso la muerte de sus connotaciones sociales o políticas más críticas. El cine negro clásico, simplemente, como una población de organismos vivos, ‘evolucionó’, se convirtió en otra ‘especie’.

Sin embargo, cabe preguntarse si el thriller USA de los años setenta no es la última expresión ‘pura’ de cine negro, antes de la eclosión del actioner en los ochenta. Al igual que su homólogo de los años treinta y cuarenta, el que podríamos llamar cine negro de los setenta planteó la problemática individual y colectiva del crimen, en un contexto contemporáneo, con un tratamiento visual realista, a la vez testimonial y crítico, que exhibía la ambigüedad moral y la fatalidad nacidas de las injusticias y corrupciones del Sistema. Y lo hizo mediante un lenguaje sumamente imaginativo que bebía, indistintamente, de fuentes hollywoodienses clásicas, de los nuevos cines europeos y de la impactante estética ‘verídica’, ‘inmediata, del documental y la televisión’.

Nuevos cineastas y otros con una larga carrera ya a sus espaldas transitaron por todos los diversos caminos por los que se movió el cine negro americano de la época: desde nuevos géneros como el *blaxploitation* (cine destinado mayoritariamente a la población afroamericana), con el detective John Shaft a la cabeza, a películas sobre “teorías de la conspiración como **Todos los hombres del presidente** (1976), la aparición de policías de métodos personales y expeditivos como Harry Callahan –Clint Eastwood en la saga empezada con **Harry, el sucio** (1971)– o “Popeye” Doyle –Gene Hackman en **Contra el imperio de la droga** (1971)–, títulos míticos como **El padrino** (1972) o **Malas calles** (1973), la influencia en toda la sociedad de la Guerra de Vietnam –**Taxi Driver** (1976)– y de los cambios que se estaban produciendo en los años 70... Volviendo a Antonio José Navarro:

“Lo único que necesitaba el thriller USA de los setenta para existir eran tres elementos: la presencia abisal del crimen en cualquiera de sus múltiples variantes –desde el asesinato hasta el chantaje, ya sea perpetrado por un criminal en solitario o por una banda, con nocturnidad y alevosía o en pleno día...–; un no menos abisal entramado psicológico que ‘explique’ el delito y su trastienda humana –los actos son, en este género, más elocuentes que las palabras–, capaz de descubrirnos, citando a Marcel Oms, esas realidades paralelas que coexisten en cada uno de nosotros, individuos y seres sociales, y en el que la noción de crimen cuestiona la coexistencia

pacífica de toda una comunidad; y, por supuesto, un estilo visual que potencie, como ya hemos apuntado, la claustrofobia, la paranoia, el nihilismo, una idea trágica del destino. Requisitos que el género cumplió sobradamente, presentando una significativa cualidad: muchos de ellos no han perdido su vigencia artística. Quizá sea porque los problemas sociales y políticos que reflejan, los conflictos humanos que plantean, no han desaparecido: simplemente han adoptado otras formas, otras máscaras. Tal vez, porque su narrativa 'fuerte', con situaciones bien diseñadas y entrelazadas entre sí, el papel fundamental de la acción, unida a un estilo adulto, serio, de contar una historia, de exponer una visión del mundo rigurosa, discutible a veces, pero alejada de edulcorantes políticamente correctos, las convierten en rarezas. Rarezas que sucumbieron en aras de la progresiva infantilización y espectacularización del cine de Hollywood".

LAS PELÍCULAS DEL CICLO

Bullitt (*Bullitt*, 1968). **Director:** Peter Yates

Frank Bullitt marcó tendencia en el cine americano de la época. Detective residente en San Francisco, siempre elegante y *cool*, conductor de un Ford Mustang, Bullitt es quizá el primer policía "moderno" del nuevo *thriller* de la época. Steve McQueen es el rostro de este investigador que mientras investiga un asesinato acaba enfangado en una compleja trama de intereses políticos, judiciales y criminales que alberga en su interior una de las persecuciones de coches más famosa de la historia.

El detective (*The Detective*, 1969). **Director:** Gordon Douglas

Un veterano policía, Joe Leland, investiga el asesinato del hijo de un conocido e influyente ciudadano. Todas las pruebas parecen indicar que el culpable es su compañero de piso, así que tras ser detenido es juzgado, condenado a muerte y ejecutado. Nuevas evidencias mientras investiga otro caso le hacen ver a Leland que quizá se equivocaron. Sórdida, turbia y sin concesiones, retrato de un detective duro interpretado por Frank Sinatra en uno de sus mejores trabajos.

Shaft (1971). **Director:** Gordon Parks

"¿Quién es el detective privado negro que es una máquina sexual para las chicas? ¡Shaft!". Así comienza la canción de Isaac Hayes convertida en leyenda gracias a la película (y viceversa), que se inicia con ella. El fenómeno *blaxploitation*, comenzado más o menos un año antes, conoce su primer gran éxito con la historia de este detective negro radicado en el centro de Nueva York e interpretado por Richard Roundtree que se mueve en esta ocasión entre las mafias italiana y afroamericana por las "noches rojas" de Harlem. Un clásico imprescindible de los 70.

Contra el imperio de la droga (*The French Connection*, 1971). **Director:** William Friedkin

Auténtico clásico del cine policíaco y uno de los títulos emblema del *thriller* USA de los años 70. Dos policías, Jimmy "Popeye" Doyle (Hackman) y Buddy Russo (Scheider) enfrentados a una organización francesa de tráfico de drogas encabezada por el elegante Alain Charnier (Rey). Personajes inolvidables, una ciudad corrompida, violencia contenida, bajos fondos y una persecución que ha pasado a la historia. El *thriller* nunca fue el mismo.

Charley Varrick (1973). **Director:** Don Siegel

Charley Varrick es un independiente, un ladrón que siempre ha trabajado a su aire, especializado en atracos pequeños para no verse demasiado acosado por la Policía. Sin embargo, en su último robo a un pequeño banco de un pueblo de Nuevo México todo sale mal, hay muertos y la cantidad que roba es mucho más alta de lo habitual en un lugar como ese. Pronto averiguarán por qué. Dirige todo un clásico del género, Don Siegel: **Madigan** (1968), **Harry, el sucio** (1971), **Fuga de Alcatraz** (1979)...

Los nuevos centuriones (*The New Centurions*, 1972). **Director:** Richard Fleischer

Kilvinski es un veterano policía que nunca ha hecho otra cosa que trabajar, por lo que su vida privada se ha resentido mucho. Ahora que ve cerca su jubilación le entra el miedo, porque no sabe qué hará cuando tenga que dejarlo. Le asignan como compañero a Fehler, un joven idealista y

ambicioso que acaba de incorporarse al Departamento. En unas semanas el trabajo también comienza a absorber toda su vida. Son los nuevos centuriones.

Pelham, 1, 2, 3 (*The Taking of Pelham One Two Three*, 1974). **Director:** Joseph Sargent
Un vagón del metro de Nueva York es secuestrado por cuatro delincuentes –los señores Azul, Verde, Gris y Marrón, nominación que Tarantino homenajeó en **Reservoir Dogs** (1992)–, que exigen un millón de dólares en una hora o comenzarán a matar a los rehenes. El agente Garber inicia las negociaciones. Trepidante *thriller* versionado el pasado año por Tony Scott.

La noche se mueve (*Night Moves*, 1975). **Director:** Arthur Penn
Gene Hackman interpreta al detective privado Harry Moseby, algo hastiado de su profesión. Una actriz alcoholizada y cuyos mejores tiempos ya pasaron le contrata para que encuentre a su hijastra desaparecida. Lo que parecía un caso sencillo se complica. Un clásico, una de las mejores películas de Penn, el rostro del *thriller* de los 70: Hackman.

Cruising (1980). **Director:** William Friedkin
Un asesino en serie ha matado ya a varios homosexuales que frecuentaban los bares *gays* de la ciudad de Nueva York. Un policía de la ciudad se introduce en ese ambiente para intentar atrapar al criminal. Se sumerge en un mundo que desconoce por completo, un viaje en solitario, casi sin contacto con sus compañeros ni con su novia, que comienza a afectar gravemente su vida personal.

El último testigo (*The Parallax View*, 1974). **Director:** Alan J. Pakula
Uno de los títulos más destacados dentro de las películas sobre “teorías de la conspiración” que proliferaron en las pantallas en los años 70. En esta ocasión Warren Beatty interpreta a un ambicioso reportero que, tras ser testigo del asesinato de un senador junto a varios colegas (también presencian el suicidio del asesino), va viendo cómo poco a poco estos van muriendo en extrañas circunstancias. La misteriosa corporación Parallax parece estar en el centro de todos estos sucesos.

La huida (*The Getaway*, 1972). **Director:** Sam Peckinpah
McQueen y MacGraw interpretan a un matrimonio que trata de alcanzar la frontera mexicana tras haber asaltado un banco en Texas, mientras sus antiguos compinches les persiguen para recuperar el dinero. Trepidante *road movie* basada en una novela de Jim Thompson –*1.280 almas, Los timadores*– adaptada por el futuro realizador y productor Walter Hill y musicada por Quincy Jones. Dirige Sam Peckinpah después de **Perros de paja** (1971) y **Junior Bonner** (1972) y antes de **Pat Garrett y Billy the Kid** (1973) y **Quiero la cabeza de Alfredo García** (1974).

San Francisco, ciudad desnuda (*The Laughing Policeman*, 1973). **Director:** Stuart Rosenberg
San Francisco es el escenario donde se desarrolla este intenso y turbio policiaco interpretado por una pareja de policías de la división de homicidios, de métodos muy diferentes, que investiga un asesinato múltiple ocurrido en el interior de un autobús, en el que ocho personas, entre ellas un policía, han sido acribillados a balazos. Adaptación de la conocida novela sueca *El policía que ríe*, del matrimonio Wahlöö-Sjöwall.

Chinatown (*Chinatown*, 1974). **Director:** Roman Polanski
Jack Nicholson interpreta en esta producción de Robert Evans –el hombre de moda en el Hollywood de la época, cuyo ascenso, auge y caída recogió en su autobiografía *El chico que conquistó Hollywood*– a J. J. Gittes, un detective privado de Los Ángeles en los años 30 que acaba inmerso en una espiral de violencia, podredumbre moral y corrupción política con la que Polanski quiso mostrar “*de qué manera la codicia humana había configurado la historia y las fronteras de Los Ángeles*”. Un clásico indiscutible del cine de la época.

Fuga sin fin (*The Last Run*, 1971). **Director:** Richard Fleischer
Harry Garmes, un antiguo gánster de Chicago, vive retirado en la costa española dedicado a su pasión: los coches. Recibe un encargo, el último de su carrera: llevar hasta Francia a un peligroso delincuente americano y a su novia. El trabajo, en apariencia sencillo, se convierte en una trampa.

Trepidante *road movie* comenzada por John Huston y fotografiada por el operador habitual de Ingmar Bergman.

Dillinger (*Dillinger*, 1973). **Director:** John Millius

Historia de la vida y carrera criminal de uno de los gánsteres más famosos de la historia, cuya vida ha sido llevada al cine en diversas ocasiones –la última este mismo año de la mano de Michael Mann y Johnny Depp en **Enemigos públicos**–. Warren Oates interpreta a John Dillinger, perseguido durante años por el peculiar y tenaz Melvin Purvis. Cine de inspiración clásica dentro del renovado *thriller* USA de los años 70 a cargo del futuro director de **El viento y el león** (1975), **Conan, el bárbaro** (1982) y **Amanecer rojo** (1984).

Serpico (*Serpico*, 1973). **Director:** Sydney Lumet

Al Pacino es Frank Serpico, un honesto policía de la ciudad de Nueva York enfrentado a sus compañeros al no aceptar sobornos ni participar de la corrupción generalizada del departamento. Retrato sin concesiones de la policía de la Gran Manzana que causó un gran impacto en la época. Basada en un caso real. Dirige Sydney Lumet, que lleva transitando por el género más de 50 años: **12 hombres sin piedad** (1957), **Tarde de perros** (1975), **Distrito 34: Corrupción total** (1990), **Antes que el diablo sepa que has muerto** (2007)...

PROGRAMACIÓN

azaroa 11 noviembre
azaroa 18 noviembre
azaroa 25 noviembre
abendua 2 diciembre
abendua 9 diciembre
abendua 16 diciembre
urtarrila 13 enero
urtarrila 27 enero
otsaila 3 febrero
otsaila 10 febrero
martxo 3 marzo
martxo 17 marzo
martxo 24 marzo
apirila 14 abril
apirila 21 abril
maitza 5 mayo

Bullitt
El detective
Shaft (*EUSKARAZ*)
Contra el imperio de la droga
Charley Varrick (*EUSKARAZ*)
Los nuevos centuriones
Pelham, 1, 2, 3
La noche se mueve
Crusing (*EUSKARAZ*)
El último testigo
La huida
San Francisco, ciudad desnuda
Chinatown (*EUSKARAZ*)
Fuga sin fin
Dillinger
Serpico